

# DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

(2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikagarria)

## 1. Arduraduna. Nork tratatuko ditu zure datuak? Datuen Babeserako Delegatua (DBD)

1.1. Caja Rural de Navarra, Kreditu Sozietate Kooperatiboa (aurreratzean, Arduraduna), IFZ F31021611 eta egoitza Iruñea, Foruen Plaza 1, PK 31003. Gurekin harremanetan jar zaitezke bezeroarentzako posta elektronikoz ([buzon.cnavarra@cajarural.com](mailto:buzon.cnavarra@cajarural.com)), telefonoz (948 168 100) edo [gure sareko edozein bulegotara](#) jota.

1.2. Jakin ezazu, gainera, Arduradunak **Datuen Babeserako Delegatu** bat izendatu duela (aurrerantzean, **DBD**), eta haren zeregina izango da, besteak beste, datuen babeserako arautegia gure erakundearen betetzen dela ikuskatzea eta gu aholkatzea. Harrekin harremanetan jarri behar baduzu, aukeran duzu posta elektronikoko bat igortzea [protecciondatos.cnavarra@cajarural.com](mailto:protecciondatos.cnavarra@cajarural.com) helbidera, edo eskutitz bat igortzea goiko helbidera, "Datuen Babeserako Delegatua" aipatuz.

## 2. Tratamendu bateragarriak.

2.1. Orain azalduko dizugun moduan, kontratatutako edo eskatutako zerbitzu batzuk eman ahal izateko, beharrezkoa da zenbait datu tratatzea; aldiz, beste batzuk borondatezkoak edo gehigarriak dira, lehenbizikoekin bateragarriak, haien helburu bakarra gure produktuak eta zerbitzuak hobetzea baita, bai eta zuri egokitutako publizitatea bidaltzea ere. Borondatezko zerbitzu gehigarri horiek ematen hasteko, beharrezkoa da zuk guri baimena eman izana edo etorkizunean ematea, edo, bestela, tratamenduaren Arduradunak "*interes legitimo*" bat edukita, zuk kontra egin ez eta Arduradunak datuak tratatzeari utzi behar ez izatea legeak hala agintzen duen kasuetan. Ondoren argitzen da zer den interes legitimo hori.

## 3. Legitimazioa. Zergatik tratatzen dira datuak?

3.1. Zenbait **datu tratatu beharrekoak** dira, Arduradunak **legezko obligazio** bat duelako zurekiko (adibidez, kapitalen zuriketari buruzko arautegiaren ondorioz), edo beharrezkoak direlako zu parte zaren **kontratuak, aurrekontratuak, edo zure eskabideak gauzatzeko**.

3.2. Tratamendu gehigarriak oinarritzen dira edo Arduradunaren "*interes legitimoan*", edo inongo kalterik gabe ezeztatu dezakezun zure baimenean. Adibidez, [Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legeak](#) dioenez, zurekiko kontratu-harreman bat baldin badago aurrez, jakinarazpen komertzialak bidali ahal zaizkizu modu elektronikoa (adibidez, mezu elektronikoa, SMSa edo horien parekoa), Arduradunak merkaturatzen dituen produktuei edo zerbitzuei buruzkoak, zurekin kontratatu zirenen antzekoak, eta zure datuak helburu horretarako ez tratatzeko agindu dezakezu noiznahi, adibidez bidalketa bakoitzarekin batera doan bidea erabiliz.

#### 4. Legitimazioa. Zer da “*interes legitimoa*”?

- 4.1. Arauek diotenez, zure datuak tratatzeko *interes legitimoa* dago beharrezkoa denean Arduradunaren edo hirugarren baten premiak asetzeko, baina inoiz zure interes, eskubide eta askatasunen gainetik joan gabe. Horrek bi posizioak aztertzea eskatzen du, kasu bakoitzean. Adibidez, arauak interes legitimoa aitortzen diote marketin zuzenari edo enpresa-talde baten baitan datuak partekatzeari, barneko helburu administratiboekin.
- 4.2. Halaber, kontroleko agintaritzek (hala nola, Datuen Babeserako Espainiako Agentziak) interes legitimoa aitortu diete, baldintza batzuen barruan, iruzurra saihesteari, aurrez emandako kredituez edo antzeko eragiketez informatzeari, zenbait baldintzarekin, eta haiek eskaini aurretik zure kaudimena aztertzeari, eskaintza komertzialak zure profiler a egokitzeari, eta jokabide-ereduak egiteari datu anonimoetan edo pseudonimizatueta oinarrituz.
- 4.3. Lehen adierazitako moduan, interes legitimoan oinarritutako tratamenduen kontra egiten baduzu, tratamendu hori amaitu egin daiteke zenbait kasutan.

#### 5. Helburuak. Zertarako erabiliko dira zure datuak?

##### 5.1. Egin beharreko tratamenduak dira hauek:

- 5.1.1. Ordenamendu juridikoa betetzea, hau da, batzuetan datuak lagatzea agintariei, besteak beste Espainiako Bankuari eta Zerga Administrazioei (adibidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari edo Nafarroako Zerga Ogasunari).
- 5.1.2. Gurekin kontratuak egiteko zure eskabideei erantzutea, bai eta zu parte zaren kontratuak era aurrekontratuak gauzatzea ere.
- 5.1.3. Zure ahalmen ekonomikoa aztertuz ebaluatzea eragiketak ez ordaintzearen arriskua, eta, beraz, ematea edo ez. Hau da, ahalmen hori aztertu behar da, zuri eman ahal izateko kredituak, maileguak, zorpeko-baimenak edo zure kontuaren gainean aurrez emandako kredituak, renting- eta leasing-zerbitzuak, efektu-deskontua, confirming-a edo antzekoak. Horrek eskatzen du profilak sortzea eta horretarako erabaki automatizatuak hartzea. Beti duzu eskubidea norbaitek parte har dezan erabaki horietan (ikus dokumentu honen 10. atala, “Eskubideak”).
- 5.1.4. Ordainduak ez izateko arriskua duten kontratuak egiteko orduan, arautegiak zure kaudimena aztertzea agintzen du, hornidura kontableak edukitzeko (dirua gordetzea, ordaintzen ez bada ere). Horrek ere eskatzen du profilak egitea eta erabaki automatizatuak hartzea, bai eta zure datuak anonimo bihurtzea ere, edo gehitzea, ereduak sortuz arautegia betetzeko.
- 5.1.5. Egokitasun- eta komenigarritasun-testa egitea zenbait produktu kontratatzeke, horretara behartzen baikaitu legeriak (MIFID II arautegia, hau da, [2014/65/EB Zuzentaraua, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa](#)), egiatzatu ahal izateko inbertsioei buruzko erabakiak har ditzakezula, eta haien arriskuak ulertzen dituzula.
- 5.1.6. Profil eta erabaki automatizatuak egitea, eskaintzen zaizkizun kontratuak bat etor daitezen zure premiekin eta onurarekin, horretara behartzen baikaitu [2016/97 Zuzentaruak, aseguruak banatzeari buruzkoak](#), eta hura garatzen duen arautegiak.

- 5.1.7. Iruzurra eta kapitalen zuriketa saihestea, profilak eginez eta erabaki automatizatuak hartuz legea betetzeko, adibidez [10/2010 Legea, apirilaren 28koa, kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa saihesteari buruzkoa](#).
- 5.1.8. Beharrezkoa denean dei telefonoen grabaketak egitea eta jasotzea, legea betetzeko, adibidez MIFID II arautegia ([2014/65/EB Zuzentaraua, 2014ko maiatzaren 15koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa](#)).
- 5.1.9. Bideo-irudiak hartzea eta jasotzea, segurtasun pribaturako, legeak agintzen duen denboran.
- 5.1.10. Arautegi aplikagarriaren arabera legezkoa denean, zure funtsezko datuak eguneratzea (identifikazio-datuak eta kontratu bakoitzean premiazkoak direnak) eta datu publikoekin aberastea (erregistro publikoak, katastroa edo zeuk publiko egindako datuak), aipatu ditugun identifikazio-obligazioak eta bestelakoak betetzeko.
- 5.1.11. Pertsona juridiko baten edo hirugarren baten kontura jardunez gero, harremanetan jartzeko datu horiek ere berdin tratatuko dira, harreman juridikoari eusteko.
- 5.1.12. Zure datuak lagatzea iruzurra saihesteko eta fitxero komunak sortzeko, arautegiari jarraituz, bai eta gure sareen eta informazioaren segurtasuna bermatzeko ere.
- 5.1.13. Zuri buruzko informazioa kontsultatzea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, identifikatu eta egiaztatu ahal izateko zure jarduera ekonomikoa –kapitalen zuriketa saihesteko arautegia eta beste arau batzuk betez–, bai eta zergak egiaztatzeko kodeak ere, helburu berarekin.

**5.2. Interes legitimo batean edo arauetan oinarritutako tratamendu boluntarioak** dira –non eta aurka egin ez diezun, lehenago edo harremanak iraun bitartean, eta erakundeko bezero izaten jarraitzen baduzu–, honako hauek:

- 5.2.1. Gure erakundeak merkaturatzen dituen produktuei eta zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak bidaltzea, zentzuzko pribatutasun baten barruan (adibidez, kontratatutako dituzun zerbitzuen antzekoak), edozein bide erabiliz, hala nola telefonoa, posta eta mezu elektronikoa, sms-a, horien antzekoa, edo nabigazioko abisua. Guk merkaturatutako produktuak dira kreditu-erakundeek berezko dituztenak, inbertsio- eta aseguru-produktuak; izan ere, aseguruak eta poliza kolektiboak ditugu zuri eskaintzeko, gure operadorearen bidez.
- 5.2.2. Zurekiko harremana doitzeko profil partikularrak egitea, urtebete baino zaharragoak ez diren datuetan oinarrituak, zeuk egindako transakzioei buruzkoak (hau da, zure kontu korronteko mugimenduak eta kontzeptuak, egindako eragiketak eta kontratuak, txartel bidezko ordainketak eta gure webeko nabigazio-datuak, batez ere kontratazioekin lotuak).
- 5.2.3. Barneko datuen bidez zure kaudimena aztertzea, aurrez emandako kredituei edo finantzaketari buruzko jakinarazpenak igortzeko.
- 5.2.4. Enpresa-taldeko eta erakunde afiliatuetako zure datu pertsonalak zabaltzea, baina barruko helburu administratibo hutsez, bezeroen datuen tratamendua barne. Hartzailletan dituzu Caja Rural Taldea osatzen duten erakundeak (ikusi dokumentu honen 9. atala).
- 5.2.5. Zure datu nagusiak eguneratzea (identifikazio-datuak eta kontratu bakoitzean beharrezkotzat jotakoak) eta datu publikoekin aberastea (erregistro publikoak, katastroa eta zeuk publiko egindako informazioa), eguneratze hori beharrezkoa denean bezeroarekiko harremanari eusteko.
- 5.2.6. Jokabide-ereduak sortzea datu pseudonimizatuen eta anonimoen bidez, produktu edo zerbitzu berriak sortzeko, edo haiek edo eskaintzen dizugun arreta hobetzeko.
- 5.2.7. Kontratututako produktuei eta zerbitzuei buruzko gogobetetze-inkestak egitea.
- 5.2.8. Kokapen profesionalari buruzko pertsona juridikoaren harremanetarako datuak ere tratatuko dira, interes legitimoan oinarriturik, pertsona juridikoarekin harreman komertzialak edo

bestelakoak mantendu ahal izateko. Berdin jokatuko da banakako enpresarien datuekin, soilik hala diren heinean, eta ez pertsona fisikoekin bezalako harremana izateko.

**5.3. Zuri eskatu zaizun edo eskatuko zaizun baimenean oinarritutako tratamendu boluntarioak dira** (baimen hori beti doan eta inongo kalterik gabe ezeztatu ahal duzu), honako hauek:

- 5.3.1. Hirugarrenen, Caja Rural Taldeko enpresen produktuei eta zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak bidaltzea, dokumentu honen 9.6 atalean agertzen direnak, edo kontratatu dituzun produktuei ez bezalako buruzkoak, edozein bide erabiliz, hala nola telefonoa, posta eta mezu elektronikoa, sms-a, horien antzekoa, edo nabigazioko abisua. Batik bat sektore hauetakoak: finantzak, aseguruak, motorra, etxebizitza, osasuna, inbertsioa, higiezinak, elektronika, telekomunikazioak, aisia, ostalaritza eta bidaiak.
- 5.3.2. Zure datuak lagatzea RGA MEDIACIÓN, O.B.S.V., S.A. eta RGArI, aseguru-produktuei buruzko eskaintza bereziak jaso ditzazun, edo Caja Rural Taldeko enpresei (“Hartzaileak” izeneko 9. atalean datoz).
- 5.3.3. Geure eta hirugarrenen [cookieak](#) erabiltzea gure zerbitzuak hobetzeko eta zure lehentasunekin lotutako publizitatea erakusteko, zure nabigazio-ohiturak aztertuz, eta informazio gehiago eskuratu ahal izango duzu nabigatzen hasi aurretik baimena emateko agertuko zaizun [cookie-politikan](#).
- 5.3.4. Zure kokapena geolokalizatzea, hala eskatzen duen zerbitzu bati baimena ematen diozunean, erabiltzen ari zaren gailuak edo app-ak azalduko dizun moduan.
- 5.3.5. Zure jarraibideak betez, eramangarritasun-eskubidez baliatuz, zure datuak lagatzea zeuk adierazitako hirugarrenari.
- 5.3.6. Zure datuak eguneratzea eta aberastea ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko fitxategiekin, bai eta publikoak diren beste datuekin ere (erregistroak, sareak, etab.), gure eskaintzak zuri doitzeko eta segmentatzeko.
- 5.3.7. Etorkizunean baimentzen dizkiguzunak, konfiantza eman diguzulako, esate baterako zure datuak sartzeko fidelizazio-kanaletan, sustapen-inkestetan, zozketetan edo bezeroentzako onura berezietan.

**6. “Profilatua” eta erabaki automatizatuak. Zergatik eta zertarako erabiltzen dira?**

**6.1.** Profilatzea da datu pertsonalak erabiltzea pertsona fisiko baten zenbait alderdi ebaluatzeko, gure kasuan aztertu eta iragarri ahal izan ditzagun zure egoera ekonomikoa (adibidez, hornidurak gordetzera behartzen gaituen kaudimen-arautegia betetzeko, eta baita ordainduak ez izateko arriskua duten eragiketak onartzeko edo ez), lehentasun pertsonalak eta interesak (adibidez, gure eskaintza komertzialak zure profileraren bidez informazioa emateko, esate baterako, pentsio-planei buruz zure adinaren arabera, edo inbertsio-planei buruz, zure inbertsio-profilaren arabera), fidagarritasuna, jokabidea (adibidez, arautegiak zure prestakuntza eta esperientzia ebaluarazten digu, zenbait inbertsioen arriskuaz ohartarazteko), kokapena edo mugimenduak (adibidez, gailu batean geolokalizazio-zerbitzuak aktibatu dituzunean zerbitzu batez baliatzeko edo gu lokalizatzeko, etab.).

**6.2.** Zenbaitetan, profil horien ondorioz erabaki guztiz automatizatuak hartzen dira, hau da, inork parte hartu gabe, era horretan erabaki homogeenak har ditzakegulako, denentzako berdinak, datu

objektiboen edo joeren arabera, kontuan hartuz adina, bizilekua, gaitasun ekonomikoa, kaudimen- edo kaudimengabezia-fitxategietan zauden edo ez, prestakuntza, lanbidea, jarduera ekonomikoa, etab. Horrela gertatzen da, adibidez, web bidezko erantzun automatikoa ematen zaienean zenbait kreditu-eskaerari. Era horretan erabakiak bidezkoagoak dira, denentzako berdinak. **Dena dela, halakoetan beti eska dezakezu pertsona batek artatzea, zure iritzia adierazi eta erabakiaren aurka egin dezakezu,** zu ahalik eta modurik eraginkorrenean artatzea baita gure interesa beti. **Hala gertatzen bada, mesedez, jo ezazu gure DBDarengana edo bezeroarentzako zerbitzura.**

### 6.3. Laburtuz, tratamendu horiek posible egiten digute:

- 6.3.1. Ordaintzen ez bada hornidura estatistikoak (generikoak) edukitzeko obligazioa betetzea, era horretan galera posibleak saihestuz jarduera-sektoreei, sektore demografikoei edo modu estatistikoan aztertutakoei, adibidez lanbide bati edo jarduera ekonomiko bati eragiten dion krisi ekonomiko orokor batean.
- 6.3.2. Ez ordaintzeko arriskua duten eragiketak ebaluatzea, zuri buruzko datuak hartuz aztertu ahal izan dezagun emandakoa itzultzeko duzun gaitasun ekonomikoa.
- 6.3.3. Legearen aginduz aztertu behar dugu, halaber, zure esperientzia, prestakuntza eta zenbait inbertsio- edo kontratu-eragiketak egiteko zure gaitasuna ere, egokitasun- eta komenigarritasun-testen bidez.
- 6.3.4. Azkenik, zure profil zehatza ebaluatuz soilik bidali ahal dizugu benetan interesatu ahal zaizun publizitatea, zure egoera partikularren arabera.

## 7. Epeak. Noiz arte gordeko ditugu zure datuak?

- 7.1. Non eta baimena eman ez diguzun, gure erakundeko bezero zaren bitartean soilik gordeko ditugu zure datuak. Une horretatik aurrera, blokeaturik gordeko dira (hau da, agintarien eskura eta erakundearen defentsarako) egindako eragiketei eta transakzioei buruzko datu minimoak, gure obligazioak preskribatu ez diren bitartean edozein erreklamaziori erantzun ahal izateko. Normalean, erantzukizun hori 10 urtekoa dela agintzen du kapitalen zuriketa saihesteko arautegiak, eta 20 urtekoa dela, berriz, hipoteka-legeriak. Preskripzio-epeak igarotzean, erabat ezabatuko dira.
- 7.2. Bezero ez bazara eta kontratazio-eskaeraren bat egin baduzu, zure datuak gordeko ditugu egin zaizun eskaintza indarrean dagoen bitartean, edo eperik finkatu ez bada, 90 egunez, zure kontratazioa errazteko eta zuri informazio bera hainbat aldiz ez eskatzeko.
- 7.3. Bideozaintzarako hartutako irudiak hilabetez gordeko dira, non eta legeak ez dituen epe zabalagoak baimentzen, adibidez gorde egin behar direnean pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunaren kontrako ekintzak egiaztatzeke. Berdin gertatuko da eraikin pribatuetako sarbide-datuekin, identifikaziorako eta segurtasunerako.

## 8. Zer datu eta tratamendu dira beharrezkoak eta zein dira horiek ez ematearen ondorioak?

- 8.1. Datuak biltzeko kontratuetan eta inprimakietan izartxo bat (\*) duten eremuak derrigorrezkoak dira kontratua, aurrekontratua edo haren eskaera egiteko, bai eta legeak eta bestelako arauak betetzeko

ere. Ondorioz, datu horiek beharrezkoak dira helburu horietarako, eta horiek gabe ezin da jarraitu eragiketarekin.

- 8.2.** Gainerako datuak eta helburuak aukerakoak dira, baimena behar dute, eta hasieran eman baina noiznahi uka daiteke. Beste tratamendu batzuk, berriz, interes legitimoan daude oinarrituta, eta haien aurka ere egin daiteke legezkoa denean. Kasu bietan –baimenean eta interes legitimoan oinarritutako tratamenduetan–, baimena ukatzeak edo aurka egiteak ez du baldintzatuko hura gauzatzea edo eskatzea, eta ez dizute kalterik eragingo.

## **9. Hartzaileak. Nork ikusi ahal izango ditu nire datuak?**

- 9.1.** Arduradunak soilik tratatuko ditu datuak, non eta ez diguzun baimentzen zure datuak beste erakundeei lagatzea, edo ez duen legeak agintzen, edo ez den arauzkoa edo legitimoa, adibidez Ekonomiarako eta Enpresaren Babeserako Estatu Idazkaritzaren ardurapeko Finantza Titulartasunen Fitxategiari jakinarazten zaizkionean titularren identifikazio-datuak, titular errealak, ordezkariak edo baimenduak, eta kontu korronteak, aurrezki-kontuak eta epekako gordailuak dituzten pertsonen datuak, bai eta produktu horiek ireki, itxi edo aldatu izanaren datuak ere.
- 9.2.** Hala, arauak betetze aldera lagako zaizkie zure datuak agintariei, besteak beste zerga-administrazioei (adibidez, Nafarroako Zerga Ogasunari edo Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari) eta Espainiako Bankuari, batez ere CIRBERi (Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentrala), eta zure identifikazioarekin batera aipatuko dira ordainduak ez izateko arriskua duten produktuak.

**Uneren batean akatsen bat aurkitzen baduzu CIRBE horretan, mesedez utziguzu bizkor zuzentzen, eta jo ezazu gure DBDarengana, “CIRBE akatsa” erreferentzia erabiliz.**

- 9.3.** Ordaintzen ez bada, zorra eta zure identifikazio-datuak sartuko dira kreditu-informazioari buruzko fitxategi hauetako batean: ASNEF EQUIFAX –Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito, S.L. sozietateak kudeatua–, eta BADEXCUG –Experian Bureau de Crédito S.A.k kudeatua–.

I. Eranskinean dator fitxategi horien zerrenda eguneratu bat. Halaber, datu horiek jakinaraziko zaizkie kontratatutako enpresei eta profesionalei, judizioz nahiz judizioz kanpo erreklamatu ahal izateko. **Uneren batean akatsen bat aurkitzen baduzu fitxategi horietan, mesedez utziguzu bizkor zuzentzen, eta jo ezazu gure DBDarengana, “Kaudimen-fitxategietan akatsa” erreferentzia erabiliz.**

- 9.4.** Hartzaile izango dira, halaber, zerbitzu bat emateko kontratatu behar diren Arduradunaren eragileak eta hornitzaileak ere, baina datuen babeserako arloan baimendutako kontratu eta bermeen bidez. Adibidez, hipoteka bat enkargatzen badiguzu, beharrezkoak izango dira tasatzaile bat, hipoteka eta Jabegoaren Erregistroa gauzatzeko notario bat, etab. Gure aseguru bat kontratatzen baduzu, aseguru-etxeari jakinaraziko zaizkio datuak, normalean gure taldeko RGA MEDIACIÓN, O.B.S.V., S.A.ri, eta RGA, SEGUROS GENERALES RURAL, S.A. eta RGA RURAL VIDA, S.A. aseguru-konpainiei. Hornitzaile horiek aldatu egin daitezkeenez, I. Eranskinean dituzu hornitzaileen kategoriak. Ez da aurreikusten datuak transferitzea hirugarren herrialdeei.
- 9.5.** Hornitzaileen artean, Arduradunak zurekin harremanetan jartzeko datuak (telefono mugikorra, posta elektronikoa eta helbidea) jakinarazi ahal dizkio LOGALTY Servicios de Tercero de Confianza S.L.ri, jakinarazpen eta komunikazio ziurtatu, elektronikoa edo postaletarako. Sinadura digitalizatua erabiliz gero, European Agency of Digital Trust da konfiantzako hirugarren hornitzailea. Azkenik, Taldeko gure enpresak ohiko hornitzaileak dira, horrela kontrol eta fiskalizazio goren baitugu. Hala, RURAL SERVICIOS INFORMÁTICOS, S.L. dugu informatika-zerbitzuetarako eta DOCALIA, S.L. gure jakinarazpenak bidaltzeko eta txartelak inprimatzeko, besteak beste.

- 9.6.** Interes legitimoa balego, iruzurra kontrolatzeko edo barruko jarduera administratiboetarako, edo baimena eman duzunean, zure datuak laga ahal zaizkie Caja Rural Taldeko enpresei: GRUCAJRURAL, S.L., BANCO COOPERATIVO ESPAÑOL, S.A. eta haren kutxa akziodunak, RURAL SERVICIOS INFORMÁTICOS, S.C., DOCALIA, S.L., GESCOOPERATIVO, S.A., SGIIC, SEGUROS GENERALES RURAL S.A., RURAL VIDA S.A., RURAL PENSIONES E.G.F.P., S.A. eta RGA MEDIACIÓN, O.B.S.V., S.A., eta RURAL RENTING, S.A. Taldeko Kutxa akziodunak eta enpresak datoz I. Eranskinean.
- 9.7.** Finantza-agregatzaile bat baldin baduzu, edo eramangarritasuna balego, zeuk izendatutako erakundeari lagako zaizkio zure datuak, zure baimenarekin.
- 9.8.** Azkenik, kreditu-erakundeak eta ordaindutako zerbitzuen gainerako hornitzaileak, bai eta transakzioa egite aldera datuak eman zaizkien ordainketa-sistemak eta teknologia-zerbitzuak ematen dituztenak ere, behartuak egon daitezke –lan egiten duten Estatuko legeengatik edo hark egindako Akordioengatik–, transakzioari buruzko informazioa ematera Europar Batasunaren barruko nahiz kanpoko herrialdeetako agintari edo organismo ofizialei, terrorismoaren finantzaketa, antolatutako delinkuentzia larria eta kapitalen zuriketa borrokatzeko.

## 10. Eskubideak. Zer eskubide dituzu zure datuen gainean?

- 10.1. Sarbide-eskubidea:** Arduraduna titular den fitxategietako datu pertsonalak kontsultatu ahal izatea. Arduraduna zure datu pertsonalak tratatzen ari den jakiteko eskubidea duzu, eta, hala bada, sarbidea izan dezakezu zure datu pertsonaletara eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 15.1 artikuluan aipatzen den informazio gehigarria.
- 10.2. Zuzentzeko eskubidea:** Zure datu pertsonalak zuzentzea eskatzeko eskubidea duzu, zuzenak ez balira. Hala, eskubidea duzu zuzenak ez diren datuak zuzentzea eskatzeko, edo ezabatzea eskatzeko, beste arrazoi batzuen artean datuak jada beharrezkoak ez direnean jaso ziren helburuetarako, baimena kendu duzunean, edo, besteak beste, zure datuak osatzeko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 16. eta 17. artikuluen arabera.
- 10.3. Aurka egiteko eskubidea:** Zure datu pertsonalak zenbait erabileratarako ez tratatzeko eskatzea. Hala, tratamendua zure baimenean oinarritzen denean, noiznahi uka dezakezu baimen hori. Halaber, zure datuak tratatzearen aurka egin dezakezu, batik bat profil edo erabaki automatizatuak sortzeko denean. Halakoetan, Arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, non eta ez den arrazoi legitimoengatik, edo erreklamazio posiblei aurre egiteko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 21. artikulua betez.
- 10.4. Ezabatzeko eskubidea:** Zure datu pertsonalak ezabatzeko eskatzea. Hala, datuak ezabatzeko eska dezakezu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 17. artikuluan aurreikusitako kasuetan.
- 10.5. Tratamendua mugatzeko eskubidea:** Hala, zure datuen tratamendua mugatzeko eska dezakezu, eta soilik erabiliko dira erreklamazioetarako, errekerimendu judizialei edo esijentzia legalei erantzuteko. Erabakiak soilik oinarritzen direnean zuzen zuzen ondorio juridikoak edo horien antzekoak dituzten erabaki automatizatuetan, eskubidea duzu erabaki horretan norbaitek parte hartzeko, bai eta zure ikuspuntua adierazteko ere, eta, nahi baduzu, erabaki hori inpugnatzeko.
- 10.6. Eramangarritasuna:** Tratamendua zure baimenean oinarritzen denean eta modu automatizatuan egiten denean, eskubidea duzu guri eman dizkiguzun datuen eramangarritasuna eskatzeko, euskarri egituratu batean jasotzeko, ohikoa eta irakurketa mekanikoa duena, eta beste arduradun bati bidaltzeko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 20. artikuluen arabera.
- 10.7. Baimena ezeztatzea:** Noiznahi ezezta dezakezu eman duzun baimena, zuretzako inongo kalterik gabe.
- 10.8. Erreklamazioa:** Datuen Babeserako Delegatuarengana jo dezakezu, mezu elektroniko bat bidaliz [protecciondatos.cnavarra@cajarural.com](mailto:protecciondatos.cnavarra@cajarural.com) helbidera. Gainera, edozein erreklamazio aurkez dezakezu kontrol-agintaritzaren eskudunaren aurrean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko

77. artikuluaaren arabera, eta izan daiteke zu bizi zaren, lan egiten duzun edo ustezko arau-haustea gertatu den lekuko Kontrol Agintaritzan. Datuen Babeserako Espainiako Agentzia da Kontrol Agintaritzan eskuduna Espainian, baina eskumenak izan ditzakete beste erakunde autonomikoek edo supranazionalak ere, Datuak Babeserako Erregelamendu Orokorren eta arautegi nazionalaren arabera.

## **11. Eskubideak. Nola baliatu nire eskubideez?**

- 11.1.** Hainbat aukera dituzu zure eskubideez baliatzeko: (i) mezu postal bat bidaltzea CAJA RURAL DE NAVARRA-DATUEN BABESERAKO DEPARTAMENTUA helbidera, Foruen Plaza 1, 31003 Iruñea, zure NANaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopiarekin, eskubideak eskatzen direla adieraziz, (ii) zure kredentzialekin sartzeari [www.ruralvia.com](http://www.ruralvia.com) helbideko "Datu Pertsonalak" atalera (iii) e-mail bat bidaltzea [baja-publicidad.cnavarra@cajarural.com](mailto:baja-publicidad.cnavarra@cajarural.com) zure NANaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopiarekin, eskubideak eskatzen direla adieraziz, (iv) edo [gure sareko edozein bulegotara](#) jota.
- 11.2.** Baldin eta zerbitzuren bat kontratatu baduzu Eskuzko Sinadura Digitalizatu Aurreratuaren bidez – Tableta Digitalizatzailan edo antzekoetan jasota–, arestian aipatutako modu berean baliatzea zure eskubideez, eta Arduradunari noiznahi eskatu ahal diozu sinatutako agiri elektronikoaren kopia bat, baliozko identifikazio-modu bat aurkeztuz, ahal dela zure NANaren kopia, mezu postalez egiten baduzu.

## **12. Jatorria. Nondik eskuratzen dira nire datuak?**

- 12.1.** Trataturako datuak zuzenean datoz, edo baimena eman diezun hirugarrenengandik, adibidez produktu bat kontratatu diezun adingabe edo desgaituengandik.
- 12.2.** Era berean, zure transakzioen azken urteko datuak erabiliko ditugu (zure kontu korronteko mugimenduak eta kontzeptuak, egindako eragiketak eta kontratuak, txartel bidezko ordainketak eta gure webean zehar kontratazio asmoekin egin duzun nabigazioaren datuak), profilak egiteko eta eskaintzak zure profilerara doitzeko, interes legitimoarekin, edo gure webean eta aplikazioetan nabigatzetik datozenak, baimenarekin.
- 12.3.** Zure datuak kontrastatzeko eta osatzeko, bai eta arriskuak baloratzeko ere, legeak posible egiten digu zuri buruzko informazioa osatzea legez eskuragarriak diren iturriekin (adibidez, kaudimen-fitxategiak, Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentrala, Katastroa, Jabego eta Merkataritza Erregistroa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia edo sare sozialak, zure datuak publikoak badira).
- 12.4.** Azkenik, finantza-agregatzaile bat erabiltzen baduzu eta baimena ematen baduzu, zure datuak hortik etorriko dira. Zure datuak beste arduradun batengandik gure erakundera eramateko eskubideaz baliatzen bazara ere etor daitezke datuak.

## **13. Tratatu daitezkeen datuen kategoriak:**

- 13.1.** Identifikazio-datuak, hala nola izen-deiturak, helbidea, telefonoa, bai eta helbide postalak edo elektronikoak ere.
- 13.2.** Jasotako informazio komertziala.

- 13.3.** Cookiei dagokienez, gure webean kontsulta dezakezu gure [cookie politika](#).
- 13.4.** Datu ekonomikoak eta sozio-ekonomikoak, hala nola adina, familia- edo ezkontza-egoera, lanbidea, etab.
- 13.5.** Identifikazio-kodeak edo -gakoak, hala nola gure webean aritzeko sortutako erabiltzaileak eta pasahitzak, bai eta eragiketa batera daramaten IP helbideak ere.
- 13.6.** Datu biometrikoak, hala nola eskuzko sinadura elektronikoa edo Eskuzko Sinadura Digitalizatu Aurreratua, bai eta sinaduraren irudia ere.
- 13.7.** Zure bideozaintzako irudia –segurtasunerako edo bideo-identifikazio bidez kontratatzeko–, eta zure ahotsa –telefonoa erabiliz gero kontratatzeko–.

#### **14. Zer betebeharrak ditut nire datuak jakinarazteko orduan?**

- 14.1.** Interesdunak, edo zure kontura ari denak, Arduradunari jakinarazi behar dizkio emandako datuetan gertatutako aldaketak. Hori oso garrantzitsua da, adibidez, helbidez aldatzean (zuretzako eskutitzak okerreko helbide batera iritsi ez daitezenean), transakzioen abisuak zure mugikorrera bidaltzeko kontratatu eta zenbakiz aldatzen duzunean (lehenengo zenbakia hirugarren bati esleituz gero zure informazioa bestek jaso ez dezan), etab.
- 14.2.** Era berean, hirugarrenen datuak ematen badituzu, baimendutako edo bestelako hirugarren moduan, haien baimena beharko duzu, klausula hauek haien helarazi, eta haien aldetik onartutzat joko dira.

# I. Eranskina

## HORNITZAILEAK

### Kaudimen-fitxategien hornitzaileak

- ASNEF EQUIFAX (Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito, S.L.k kudeatua)
- BADEXCUG (Experian Bureau de Crédito S.A.k kudeatua)

### Ohiko hornitzaileak

- RURAL SERVICIOS INFORMÁTICOS, S.C.,
- DOCALIA, S.L.,
- GESCOOPERATIVO, S.A., SGIIC,
- SEGUROS GENERALES RURAL S.A.,
- RURAL VIDA S.A.,
- RURAL PENSIONES E.G.F.P., S.A.
- RGA MEDIACIÓN, O.B.S.V., S.A.,
- RURAL RENTING, S.A
- LOGALTY Servicios de Tercero de Confianza S.L., European Agency of Digital Trust
- LIKEIK S.L.

### Caja Rural Taldeko enpresak

- GRUCAJRURAL, S.A.,
- BANCO COOPERATIVO ESPAÑOL, S.A.
- RURAL SERVICIOS INFORMÁTICOS, S.C.,
- DOCALIA, S.L.,
- GESCOOPERATIVO, S.A., SGIIC,
- SEGUROS GENERALES RURAL S.A.,
- RURAL VIDA S.A.,
- RURAL PENSIONES E.G.F.P., S.A.
- RGA MEDIACIÓN, O.B.S.V., S.A.,
- RURAL RENTING, S.A. ETA CAJA RURAL AKZIODUNAK
  - o Caja Rural de Navarra
  - o Caja Rural de Albacete, Ciudad Real y Cuenca
  - o Caja Rural del Sur
  - o Caja Rural de Granada
  - o Caja Rural de Asturias
  - o Caja Rural de Jaén
  - o Cajasiete Caja Rural
  - o Caja Rural de Burgos, Fuentepelayo, Segovia y Casteldans

- Caja Rural de Zamora
- Caja Rural de Soria
- Caja Rural Central de Orihuela
- Caja Rural de Extremadura
- Caixa Popular, Caixa Rural
- Caja Rural de Teruel
- Caja Rural de Almendralejo
- Caja Rural de Salamanca
- Caixa Rural Galega
- Caja Rural de Gijón
- Caja Rural La Vall, San Isidro
- Caja Rural Regional San Agustín de Fuente Álamo
- Caja Rural Ntra. Sra. de La Esperanza de Onda
- Caixa Rural D'Algemesí
- Caixa Rural de L'Alcudia
- Caja Rural San José de Alcora
- Caja Rural San José de Almassora
- Caixa Rural Benicarló
- Caja Rural Vinarós
- Caja Rural de Utrera
- Caja Rural de Betxi
- Caja Rural de Albal
- Caja Rural de Baena
- Caja Rural de Villamalea
- Caja Rural Cañete de Las Torres
- Caja Rural Ntra. Sra. del Rosario de Nueva Carteya
- Caja Rural de Casas Ibáñez
- Caja Rural Ntra. Madre del Sol de Adamúz
- Caja Rural San Isidro de les Coves de Vinromá
- Caja Rural de Aragón